

Jakin dezazun, 2015eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak:

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia.-(2015BMDH0001).- LEHENA:Aretxarteren eta Aretxabaletako Udalaren arteko honako hitzarmena izenpetu.

ARETXABALETAKO UDALA ETA ARETXARTE MERKATARI ELKARTEAREN ARTEKO

HITZARMENA 2015-2016

ARETXABALETAN MERKATARITZA SUSTATZEKO ETA INDARTZEKO EKINTZAK GAUZATZEKO ETA FINANTZATZEKO

Aretxabaletan, bi mila eta hamabosteko

ELKARTUTA

Alde batetik, Ana Bolinaga Uribarren andrea, adinez nagusia, 72.573.762-E NAN zenbakia duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate andrea, beronen ordezkaria eta horretarako behar bezala ahalmenduta dagoena.

Eta bestetik, Idoia Miren Elexpuru Ugarte andrea, adinez nagusia, 16.289.729-W NAN zenbakia duena, Aretxabaletako Aretxarte Merkatarien Elkartearen (IFZ G-20.707.501) lehendakaria dena, elkartearen izenean eta honen ordezkari gisa.

Bi aldeek, betebeharrak betetzeko ahalmena eta konpromisoa aitortuz, ondokoa

ADIERAZTEN DUTE

ARETXABALETAKO UDALAK merkataritza eta turismo ekimenak indartu nahi ditu. Horretarako, hainbat pausu ematen ari da. Besteak beste: merkatariei zuzendutako ikastaroak, negozioen transmisioari dagokienez asistentzia eta laguntza, merkataritzari zuzendutako diru-laguntza desberdinen inguruko informazioaren zabalpena, merkataritza indartzeko esaldi lehiaketaren antolaketa, etab.

Horrez gain, 2010eko maiatzean udalak Enplegu eta Garapen Teknikari bat kontratatu zuen, besteak beste, merkataritzaren dinamizazioa eta indartzea lantzeko.

Bestalde, badira urte batzuk ARETXARTE Merkatarien Elkartea sortu zela Aretxabaletan. Ordutik hona, Aretxartek hainbat ekimen martxan jarri ditu eta hamaika egitasmo antolatzen ditu urtean zehar, herriko komertzioaren indartzea eta sustapena bultzatu asmoz.

Hortaz, ARETXARTE merkataritza elkartea herriko merkataritzaren alde egiten duen lanari laguntzeko, honako hitzarmen hau sinatzen dute goian aipatutako bi aldeek, jarraian zehazten diren baldintzen arabera.

BALDINTZAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da ARETXARTEK herriko merkataritza indartzeko eta sustatzeko antolatzen dituen ekintzetarako diru-laguntzak arautzea.

Bigarrena: Hitzarmen honen bitartez, ARETXABALETAKO UDALAK diruz lagunduko ditu ARETXARTEK herriko merkataritza indartzeko eta sustatzeko antolatzen dituen egitasmo eta ekintzak. ARETXARTEK, berriz, zin egiten du ekintza hauek hitzarmen honetan batzen diren baldintzak betez burutuko dituela.

Hirugarrena: ARETXABALETAKO UDALAK diruz lagunduko dituen ekintzak ondokoak izango dira:

- Merkatarien trebakuntzan lagunduko duten hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak, etab.
- Merkataritzaren dinamizazioa eta sustapena helburu duten ekintza eta egitasmoen antolaketa. Adibidez: bezeroen erosketak saritzeko antolatzen diren zozketa eta sariak.
- Merkataritza indartzea helburu izateaz gain, herri giroa sustatzea helburu ere baduten ekimenak. Adibidez: dasta-ketak, erakusketak, "Ixadebalde" bezalako azokak, etab.
- Aurreko puntuan aipatutako egitasmoen berri emateko sortzen diren kartel edo bestelako materialak (txartelak kasu).

Ez dira diruz lagunduko ondoko ekintzak:

- Merkatal establezimenduak modernizatzeko egindako inbertsioak.

Laugarrena: Diru-laguntza hau ARETXABALETAKO UDALAK merkatariei diruz laguntzeko 2015. urterako onartutako 1.0302.471.431.00.01 partida zenbakiaren kontura izango da.

Aurrekontu partida honi dagokionez, ARETXABALETAKO UDALAK garbi utzi nahi du, partida hau ez dagoela ARETXARTERI bakarrik zuzenduta, baizik eta elkartearen barruan ez dagoen bestelako komertzio baten eskaeraren aurrean, honek ere eskubide bera izango duela (baldintza beretan) udalaren partetik diru-laguntza jasotzeko.

Bosgarrena: ARETXABALETAKO UDALAK, ARETXARTEK 2015ean antolatzen dituen ekintza eta egitasmoen kostearen % 40a hartuko du bere gain, 3.600 euroko mugarekin (BEZa kanpo). Gainontzeko gastuak onuradunak finantzatu beharko ditu, baliabide propioak erabiliz edota bestelako dirulaguntzaren baten bidez.

Merkatarien trebakuntzara zuzendutako ekintzek, gutxieneko parte hartzaile kopuru bat izan beharko dute (Aretxarteko bazkideen % 25a gutxienez) UDALAK finantzaketan lagundu ahal izateko.

Seigarrena: diru-laguntza hau jaso ahal izateko, ARETXARTEK urteko Ekintza Plana aurkeztu beharko dio UDALARI, herriko merkataritza indartzeko eta sustatzeko asmoarekin aurrera eramatea espero dituen ekintzen azalpenarekin. Horretarako, ARETXARTEK hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen den Ekintza Planaren eredia edo antzekoa aurkeztu beharko dio UDALARI.

Zazpigarrena: UDALAK bi alditan ordainduko dio dirulaguntza ARETXARTERI. Lehenengoa (%50a), elkartearen Ekintza Plana onartu eta hilabeteko epean. Bigarrena (gainontzeko %50a), urte osoan zehar izan dituzten gastu errealek justifikazioa eta zuriak egin ondoren.

Gastu hau Ekintza Planean aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, portzentaia berean murriztuko da UDALAK ARETXARTERI ordainduko diona bigarren zati honetan.

Zortzigarrena: Diru-laguntzaren bigarren zatia jaso ahal izateko, ARETXARTEK eskumena duen Enplegua eta Garapen Ekonomikoa Sailaren aurrean egiaztatu beharko du Ekintza Planean aurkeztu zituen jarduerak edo proiektuak egin dituela, eta aurreikusitako aurrekontuan. Horretarako, ondoren aipatutako diren agiriak aurkeztu beharko ditu UDALAN, diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko, 2016ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak

- Garatu dituzten urteko ekintza eta egitasmoen memoria zehatza, 2.eranskineko eredia jarraituz. Hemen, urte hasieran aurkeztutako aurrekontuaren eta behin betikoaren arteko aldean zergatiak ere azaldu beharko dira, hala balitz, behar bezala arrazoituz.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Egindako gastua egiaztatuko duten fakturak. Horretarako UDALAK egoki deritzen fakturak egiaztatzeko eskubidea izango du.
- Aurrera eramandako ekintzak ezagutzera emateko edo promozionatzeko sortutako kartelak, materiala edo dokumentazio grafikoa. Dokumentazioan argi ikusteko moduan adierazi beharko du ARETXARTEK, ARETXABALETAKO UDALAK diruz lagundu duela jarduera hori, gutxienez Udalaren logotipoa agertuko delarik.

Bederatzigarrena: Hitzarmen hau, 2016ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean eta bi aldeek hala nahi badute, urtero berriztatu beharko da. Horretarako, beharrezkoa izango da Udal aurrekontuak onartuta egotea.

Hamargarrena: ARETXARTEK, diru-laguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak izango ditu:

- Diru-laguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- ARETXARTEK UDALAK diru-laguntzaren justifikaziorako behar dezakeen dokumentazio guztia errazteko konpromisoa hartuko du.
- Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribatuen baten diru-laguntzak jaso badira, ARETXARTEK horren berri eman beharko dio UDALARI.

Hamaikagarrena: Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da. Ondoren aipatzen diren kasuak izango dira hitzarmena bete ez izanaren arrazoi, eta ondorioz, diru-laguntza kentzeko edo itzularazteko motibo:

- Eskaeraren datuetan gezurrak sartzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Hamabigarrena: Hitzarmen honetako diru-laguntza bateragarria izango da Administrazio Publikoek edo bestelako erakunde pribatuek emandako beste edozein dirulaguntzarekiko. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, diru-laguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

Hamahirugarrena: UDALEKO Enplegu eta Garapen Ekonomikoa Sailak izango du hitzarmenaren betetze mailari dagokion jarraipena egiteko ardura. Honek, besteak beste, honako hauek izango ditu kontuan, hitzarmenaren jarraipena egin ahal izateko:

- Hitzarmen honetan ezarri diren betebeharrak bete direla egiaztatzea.
- Diru-laguntza eman den xederako erabili dela egiaztatzea.
- Aurkeztu diren agiriak zein egindako gastuak justifikatzeko ordainagiriak benetakoak direla egiaztatzea.

Hamalauagarrena: Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Beraz hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak nahiz ebazpenaren ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraiki. Hitzarmen honetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, Aretxabaletako Udalak emandako diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko Ordenantza aplikatuko da. Halaber, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, eta berau garatzen duen 887/2006 Erret Dekretua izango da kontuan.

Eta bi alderdiok, ados daudela eta hitzarmenean jasotako guztia onartzen dutela adierazteko, hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, goiburuan jasotako toki eta egunean:

Aretxabaletako Udaleko Alkatea

Aretxarte

Merkatarien

Elkarteko

Sin: Ana Bolinaga Uribarren

Lehendakaria

Sin: Idoia Miren Elexpuru Ugarte

BIGARRENA: Alkatea ahalmenu aipatutako hitzarmena izenpetzeko udalaren izenean eta berau ordezkatzuz.

Aretxabaleta, 2015eko martxoaren 10a.

IDAZKARIA